

FUNTSEZKO ELKARTEA

Gure inguruko elkarteak ezinbestekoak izango dira gure zerbitzuan, beraiei esker gure proiektua atera ahal izango dugulako. Gainera gure taldekideen artean, akordioak sortu beharko ditugu; izan ere, gure artean komunikazio perfektua eta batasuna egon behar da zerbitzua aurrera eramateko.

Edonola ere, lokala irekiko dugu bulego eta biltegi bezala, bezeroekin kontaktuan jartzeko eta erabilgarri guztiak gordetzeko. Hori dela eta Urretxu-Zumarragako, Uggasa enpresarekin ipiniko gara kontaktuan, aukera guztietatik merkeena baita. Lehen bi urteetan zehar, Uggasari esker izango dugu lokala, eta hileroko 30€ren truke gastuak guztiak ordainduko ditugu, esate baterako, argindarra, ura, alkilerria eta wifia.

Zerbitzua geroz eta gehiago zabaltzeko, beharrezkoa izango da naturaren alde dauden elkarteekin kontaktuan jartzea, beraien babesa izan dezagun. Espero dugu elkarteek gugan konfiantza izatea, zerbitzua kontratatzea eta ekintzak herritarren eta udalen gustukoa izatea.

Guretzat garrantzitsua izango da bai elkarteekin bai udaleekin lanean ibiltzea eta etengabeko kontaktuan egotea. Izan ere, gure produktuak natura errespetatu behar dute, onuragarriagoa eta mesedegarriagoa delako enpresentzat eta herritar guztientzat.

Ekintzak planifikatzeko eta behar dugun materiala lortzeko, herriko dendei erosiko diegu, negozio polit eta batu bat izateko.

Beste alde batetik, enpresa eta lankideak aseguratu egin beharko genituzke, ezbeharren bat gertatuko balitz, aseguraturuta egoteko, eta hori egiteko Mapfrera jo beharko genuke, eskaintzen digutena ezagutzeko.

Nahiz eta gure dirua jarri behar izan proiektuak aurrera egiteko, agian mailegu bat eskatu beharko dugu, lasaitasun minimo bat izateko. Orduan, banku guztien interesak ikusi beharko ditugu eta gurekin hobekien moldatzen dena hautatu. Udalei zuzendutako zerbitzu bat da, beraz espero dugu diru-laguntzak ematea beraien herrian lan egin ondoren. Gure zerbitzua udaletxeek aparte, eskoletan eta beste eraikuntza publikotan eman ahalko genuke, udaletxeek esaten digutenaren arabera.

Hau guztiaz aparte, gure zerbitzua iragarri eta zabaldu behar dugu; "Gaztea" irratian, baita Euskal Herri mailako El Diario Vasco aldizkarian ere, horrez gain lehen aipatutako sare sozialetan ere egingo dugu.

